

Urtarrila



Pere Cantenys, Álvaro Ortega eta Aitor Bedialauneta.

1

Bilera EDSUrekin.

Urtarrilaren 8an Pere Cantenys, EDSUko ordezkaría (Ikasle Gorren Europako Elkartasuna), Euskal Gorrakera etorri zen urrian, Bilbon, ospatuko den Ikasle Gorren Europako Mintegiaren antolakuntza adosten hasteko. Lan saioan ondorengo pertsonak parte hartu zuten: Álvaro Ortega, Euskal Gorrakeko Presidentea eta Aitor Bedialauneta, EG Gazte Gorren Batzordearen ordezkaría.

2



Bilera Euskal Gorrakeko Gazte Gorren Batzordearekin.

Urtarrilak 16, Donostia-San Sebastianen, Euskal Gorrakeko Presidentea den Álvaro Ortega eta Euskal Gorrakeko Gazte Gorren Batzordearen ordezkaríak batzartu ziren, 2015an batzordeak aurrera eramango dituen jardueren egitaraua adosteko.



Benjamín Conde, Elena Pérez eta Álvaro Ortega.

Bilera PSErekin.

Ostegunean, otsailaren 5an, Euskal Gorrakeko presidentea eta idazkaria PSEren Politika Publikoaren idazkaria den Elena Pérez-ekin batzartu ziren, EAeko pertsona gorrek dituzten beharrei buruz eta Euskal Gorrakek eta bere elkar-te kideek egiten duten lanari buruz jakitera emateko.



Garazi López (GFAko Kultura Zuzendaria), Álvaro Ortega (EGeko Presidentea), Jokin Melida (GFAko Gazteria Zuzendaria), Aitor Bedialauneta (GGB-EGko ordezkaria) eta Salva (GAFko aterpetheen kudeaketako teknikari arduraduna).

Bilera Gipuzkoako Foru Aldundiarekin.

Otsailaren 11n Euskal Gorrakeko presidentea eta EGeko Gazte Gorren Batzordeko ordezkari bat batzartu ziren Gipuzkoako Foru Aldundiko hainbat ordezkariarekin, Euskal Gorrakek 2016rako CNSEko Gazte Gorren Estatuko Kanpamentua antolatzeko aurkeztu duen hautagaitzaz hitz egiteko.



Álvaro Ortega (EGeko Presidentea), Leticia Merladet (Amplifon Fundazioa) eta Janire Olano (EGeko Eutsi zerbitzuaren arduraduna)

Hitzarmena Amplifon Fundazioarekin.

Ostiralean, otsailaren 13an, Euskal Gorrakek eta Amplifon Fundazioak elkarlanerako hitzarmena sinatu zuten. Horri esker, Amplifonek Euskal Gorraken Donostiako egoitzarako laguntza teknikoak emago ditu bertako irisgarritasuna hobetzeko.



Euskal Gorrakeko Gazte Batzordearen kideak hautagaitzaren aurkezpenean.

Gazte Gorren Estatuko Kanpamentuaren hautagaitzaren aurkezpena.

Otsailak 21, Madrilen, Euskal Gorrakeko Gazte Batzordeak Gazte Gorren Estatuko Kanpamentua antolatzeko hautagaitza aurkeztu zuen. Euskal Gorrakeko Gazte Batzordeak irabazi zuen 22 aldeko botorekin, Kantabriako hautagaitzak, ordea, 5 boto jaso zituen. 2016ko abuztuan ospatuko da Kanpamentua, Gipuzkoako Orrio herrian. Fesord CV-k eman zion antolakuntzaren lekukoa Euskal Gorrakeri.

Martxoa



Foroan parte hartutako gazteak

Gazte Gorren II Foroa.

Bilbon, Larunbatean, martxoaren 21n, Euskal Gorrakeko Gazte Gorren Batzordeak (Gazte-EG) Euskadiko Gazte Gorren II Foroa antolatu zuen, Euskadiko Gazteen Euskal Batzordearen (EGK) laguntzarekin.

Goizeko egitarauan hainbat hitzaldi egon ziren, haietatik aipagarrienak, Basauriko Gorrak-eko Presidentea den Máximo Arévalo-ren eta Arabako Gorrakeko Presidentea den Blanca Martínez-en hitzaldiak.

Arratsaldeko saioan lan taldeak sortu, eztabaidak hasi eta jardunaldiaren ondorioak adierazi zituzten.





Álvaro Ortega eta Sabin Anuzita.

Bilera Bilboko Udalarekin.

Astelehenean, martxoaren 30ean, Euskal Gorrakeko presidentea eta Sabin Anuzita (Euskera, Gazteria eta Kirol Zinegotzia) batzartu ziren eta Euskal Gorrakek Bilboko Udalarri EDSUko Mintegia antolatzeko laguntza eskatu zion. Anuzitak ilusioz hartu zuen mintegiaren antolakuntza eta Udalarren laguntza baieztatu zuen.



Euskal Gorrak



EUSKAL GORRAK
Pertsona Gorren Elkarteen Euskal Federazioa

k/ Hurtado Amézaga 27 – 6. pisua
48008 Bilbo
Tel.: 944 765 052 / 637 861 920
Emaila: euskalgorrak@gmail.com

Euskal Gorra*k* ibili badabil !!

Urtarrila

Urtarrilak 8

Bilera EDSUrekin (Ikasle Gorren Europako Elkartasuna).

Urtarrilak 16

Bilera Euskal Gorra*k*eko Gazte Gorren Batzordearekin (Gazte EG) .

Otsaila

Otsailak 5

Bilera Euskadiko PSEren Harreman Publikoko Idazkariarekin.
EFQM Kalitate ereduko autoebaluzioa.

Otsailak 11

Bilera Gipuzkoako Foru Aldundiko Gazteria eta Kultura Zuzendariarekin .

Otsailak 13

Bilera Euskal Gorra*k*eko Zuzendaritza Batzordearekin Bilbon.
Elkarlanerako Hitzarmena Amplifon Fundazioarekin.

Otsailak 16

Bilera Eusko Jaurlaritzako Gizarte Zerbitzuetako Zuzendariarekin,
Lide Amilibia-rekin.

Otsailak 17

Bilera BBK-rekin.

Otsailak 20

Gorreriari buruzko hitzaldia Bilboko CEIP San Luisen .

Otsailak 21

2016ko Gazte Gorren Estatuko Kanpamentuaren antolakuntzaz arduratzeko
hautagaitzaren aurkezpena Madrilen.

Martxoa

Martxoak 2

Bilera Azul Marino eta Travel4All agentzia bidaiekin.

Martxoak 6

Bilera Viajes Eroskirekin.

Martxoak 14

Presidenteentzako Konferentzia bilera Gasteizen.

Martxoak 21

Euskadiko Gazte Gorren II Foroa Bilbon.

Martxoak 27

Euskal Gorra*k*eko presidentearen elkarrizketa Radio Nerviónen.
Bilera BBK Gizarte Ekintzarekin.

Martxoak 30

Bilera Bilboko Udaleko Euskera, Gazteria eta Kirol Zinegotziarekin.